



# «HOGEI URTE DIRA 'EGUNKARIA' SORTU ZELA»

Joxemi Saizar irakasle tolosarrak, euskal kazetaren sorreraren inguruko bizipenak gertutik ezagutu zituen >3

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea**  
**2010-02-28**

VIII. URTEA 1940. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Asteasuko Gorua baserriaren ondoko biltegia guztiz erreta. E. MAIZ

## Etxeratek salaketa jarri du miaketen aferaren harira

**TOLOSA** Epaitegiaren aurrean elkarretaraztea burutu zuten euskal preso senide eta lagunek s

## HAIZEAK ETA SUAK KALTE HANDIAK ERAGIN DITU GUREAN

**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA** Abaltzisketan garabia bota zuen haizeteak; Asteasun Gorua baserriko biltegia guztiz erre zen s


**EDURNE PASABAN**  
MENDIGOIZALEA

«Oh Eun-Sun korearra nire ustez lehiakorrakoa da»

**TOLOSA** Datorren astean abiatuko da Nepalera 14 zortzimilakoen bila 4



IT.



**Laser Promozioa**  
**Martxoaren 1etik 15era**

Iztondo abonua  
5 sesio  
**375 €**

Besape abonua  
5 sesio  
**250 €**

Besape + Iztondo abonua  
5 sesio  
**600 €**

# SHUYANA

EDERGINTZA

ESTETIKA: Eskolapioteko  
Lorategiak 3.1A. T. 943 675 489  
KOSMETIKA:  
Korreo 1. T. 943 671 468



**Zure gorputza modelatu**

**Tratamendu erreduktore  
promozioa**  
**Martxoaren 1etik 30era**

10 sesioko abonua  
+  
Mantenuko tratamendu  
kosmetikoa  
+  
( 2 sesio opari )

**Kontsulta itzazu prezioak  
konpromisorik gabe**

## K Komikia

NANDO



## Hogei urte eta gero hau

### » Iritzia

Joxemi Saizar  
Irakaslea

Hogei urte pasatu direla aipatuz hasi zuen hitzaldia Martxo Otamendik joan zen larunbatean plaza Berrian, Egunkaria Egunean. Hasieran nahastu egin zela pentsatu nuen, baina egia da: hogei urte dira *Euskaldunon Egunkaria* sortu zela. Tolosako Egunkaria Sortzen batzordeko partaide gisa aipatu ninduen, baina horretaz gain, *Euskaldunon Egunkaria*ren erredakzioan aritzeko zortea eta ohorea izan nuen bere lehen urtean.

Gogoan dut 1990ko abuztua Groseko auzo elkarteko egoitzan

pasatu genuela kazetaritza ikastaroa egiten. Aurretik hautaketa probak egin zizkiguten Leioan, Kazetaritza Fakultatean. Hiru urte lehenago *Argia* aldizkarian hasi nintzen kolaborazioak egiten, Pello Zubiriak eta Iñaki Uriak animatuta. Orduko paperezko euskal komunikabide bakarra zen eta bertan sortu eta mamitu zen egunkari berriaren proiektua. *Argia*ko kazetari eta kolaboratzaileok izan ginen lan talde berriaren bloke nagusia, Joxemi Zumalabe, Josu Landa eta aipatutako bien zuzendaritza-pean. Baziren *Hemen* eta *Eguna* egunkarietan (astean behin *Egin*ek eta *Deia*-k kaleratzen zituzten euskarazko egunkariak) aritutako batzuk ere. Hainbat irakasle izan genuen abuztu hartan euskara pe-

riodistikoa, maketazioa, informazioaren egitura eta grafikoen tratamendua jorratzeko. Ez zegoen aurrerarik, inork ez zuen euskarazko egunkaririk egin ordu arte. Zerotik hasi behar izan genuen.

Abendu bitarteko hilabeteak Lasarteko industrialdeko egoitzan pasatu genituen, prestakuntzak eta kaleratu gabeko egunkariak egiten, trebatzen, ikasten. Internet eta mugikorrik gabeko garaiak ziren. Orain begiratuta sinestezina dirudi egunkari bat horrela egitea. Teletipoa, telefonoa, faxa eta telefonoa ziren gure tresna bakarrak. Eta egunero egunkari bat euskara hutsez argitaratzeko gogoia eta ilusioa. Bitartean, erredakzioetik kanpora, Euskal Herriko txokoguztietan Egunkaria Sortzen batzordeak

ari ziren lanean, diru bilketan, jaialdiak eta bestelako ekitaldiak antolatzen, proiektuari babesa ematen, akzioak saltzen, jendearen laguntza biltzen... Tolosan artxiboaren aurrean, Lizartzan, Amartzetan... ekainean egindakoak gogoan ditut. Herri osoak hartu zuen parte ume berria erditzten, inoiz ikusi gabeko elkarterik anitzena osatuz. Abenduaren 6an jaio zen. Euskalgintzan horrela egin dira gauzak: batzuen lanaz eta beste askoren babesaz. Horrela sortu genuen abendu hartan bertan Galtzaundi Euskara Taldea, horrela kaleratu genuen hurrengo maiatzean *Galtzaundi* aldizkaria eta hamar urte beranduago Tolosaldean *Egunero* egunkaria.

Erakunde ofizialek ez dute gurditik tira egin aipatutako kasu horietan. Eta erakunde armatuek ere ez dute zerikusirik izan horrelakotan. Nahiz eta euskararen aurka-

koek susmo hori arma gisa beti erabili izan. Oinarririk gabeko akusazio horren aitzakian itxi zuten duela zazpi urte *Egunkaria* indarrez. Ohetik kolpean aterata lanean jarri gintuen abisu deiak. Tolosaldean *Egunero*-ren egoitza eta tresneria partekatu genuen *Egunkaria*ko langileekin Euskal Herrian *Egunero* atera ahal izateko, beraien ahotsa isil ez zedin, euskal kulturaren alde lan egiteagatik euskal gizarteari egindako erasoari gure tresna eta baliabideekin aurreragotzeko.

Gezurra ari zuen orduan eta gezurra ari du orain, *Egunkariari* azken aste hauetan egin dioten epaiketa esperpentiko eta lotsagarri horretan. Ez dakit zertan amaituko den itxuragabekeria. Akusatuak diotena errepikatuko dut: orain absolutzioa eskatzen dugu, eta gero, justizia. Zazpi urte hauetan egindako kalteen ordaintza.

## ESKELAK

943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko hitza.info



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Markel, oskarra aktore onenari



## » Uzturretik

**Eneritz Otamendi**

Zer, izan al zineten atzo Donostian? Aspaldiko partez kale antzerkia ikusteko aukera eta zuek joan ez? Bai, ba! Beasaindarra zen aktore printzipala, Markel. Ironia alde batera utzita... atzo goizean kontzentrazioa deituta zegoen Gi-

puzkoako Foru Aldundiaren aurrean, bandera espainola jartzera behartu nahi dituztela eta, inposaketa salatzen. A zer nolako paradoxa, pentsatu nuen nire baitan. Jende hau inposaketak salatzen, zeintzuk eta azken boladan inposatzea beste pentsamendurik ez darabilten hauek.

Oraindik ez da hainbeste denbora baserriarrok toki berean kontzentratu ginela, orain inposatzaile deitzen dieten horiekin adostuta onartutako aurrekontu penagarri haiek salatzen. Baserriarroi, kulturari, kirolari... murrizketak besterik opa ez zizkieten aurrekontu haiek salatzen.

Aurrekontu hauek dira, hain zu-

zen, Gipuzkoarron ahotsa kontuan izan gabe beraien proiektuak aurrera ateratzeko tresna. Abiadura azkarreko tren, erraustegia, superportua... herriarrok nahiaren aurka **inposatu** nahi dituzte. Orain inposatzaile deitzen dietenekin sozio dira kontu hauek, sozio-negozio, errima polita!

Ez daukagu ahazteko apart-heid-arena ere, orain biktimarena egiten dabilzanak, horren harira ez dute kontzentrazioa deitu, ez noski! Isiltasuna izan da nagusi eta ederki probestu dute egoera, herriaren nahiaren gainetik udal mordo, foru gobernua eta erakunde mordo bateko ordezkari-tzak **inposatzeko**.

Eta adibideak jartzen hasita, antzerkia diruz lagundu ez baina antzerkia egiten abilik diren hauei ipurdia erabat bistaratzeko aldera... Atzo, Donostian ibili ginen beste gauza bat salatzen ere, hain zuzen Markel eta konpainiak Gipuzkoako herri bati **inposatu** nahi dion herri nortasuna. Epaitegietan bar-na urte mordo pasatu ondoren, behingogatik justizia herriaren alde azaldu eta gero, Foru Aldun-

diak epaileen erabakiak batzuetan zintzo betetzen baditu ere, Igeldoren kasuan orain arte behintzat ez du zintzotasun bera erakutsi. Kasu honetan ere donostiarrak sentitzen ez diren herritarrei donostiar izaera inposatu nahi zaie, baina oraingoan biktimaz moztortuta dabilzanak dira borroro. Laster banatuko dira Oskar sariak, Markel aktore onenaren sarirako izendatuko al dute?



## Erremontea

### » Iritzia

**Xanti Aizpurua**  
Pilotaria

Erremontean etorkizunari buruz, ba momentu honetan egoera txarra da dakizuen bezela. Badira pare bat urte arazo ekonomikoak izaten hasi zela enpresa diru sarerak gutxituz, apustu aldetik gehien bat, eta hortik aurrera etorri ziren pilotari kuadroa murriztea, soldata jeitxierak eta egoera hontara bultzatu dituen arazo guztiak.

Bertan lanean ari garen pilotari eta langileontzat ez dira berri onak, baiñu badugu beste norbaitek enpresa hartu eta proiektu berriren batekin aurrera aterako garen esperantza, badabilza zurrumurru batzuk bata eta bestea dabilzala atzetik enpresa berritzeko, baiña ez dago ezer ziurtaturik, martxo-

ren 31 arte segiko dugu eta gero ikusi behar. Pilotariak oso maila onean gaude, figura asko eta jende ugari dabil frontoian azken hilabeteetan; erremontek potentziala baduela uste dut baiña zabaltzea falta zaio, telebista saio gehiago, frontoi gehiagotan jokatu eta jende berria bilatu modu batez.

Pertsonalki nerretzat gogorra egingo litzaidake erremontean gehiago ez jokatzeko, aurtengo azaroan 13 urte beteko nituzke profesinal mailan jokatzeko, eta 5 bat urte daramatzat Tolosan eta Zizurkil-eren erremonte eta pilota klaseak ematen haur eta gazteei, nere bizimodua da esate baterako eta ni bezala beste pilotari asko!

Laguntzak ere badaude kirolak bultzatzeko eta aprobetxatu behar harko litzateke.

**Erremontea ikuskizun polita eta gustagarria da eta irauun behar harko luke nere ustez!**



Galarretaren etorkizuna zalantzan aurkitzen da. HITZA

## Haizearen zain

**PABLO ALBERDI**

Atzoko azoka egunean haizea nabaria izan zen. Abisuak ugariak izan dira eta azkenean baita kunplitu ere; baina gure azokaren eritimoa ez da gehiegi aldatu. Jendearen aldetik erantzun ona izan zuen atzoko azokak beraz, eguraldia alde batera utziz.

Izan ziren atzo etorri ez ziren saltzaile batzuk, beraien ekoizpen puntuak zaintzen geratzea aukeratu zutenak, baina gehienak azokara etorri ziren.

### Oraindik neguko eskaintza

Eskaintza nahiz eta oraindik neguko izan, beste argitasun puntu berririk azaltzen hasi zaizkigu.

Dagoeneko mimosa loreak eta bulbo asko ere ateratzen hasi dira. Hau ikusita, ez dute denbora asko behar ez babek eta ezta ilarrek ere, eta are gutxiago zizek.

Bestelako produktuak, gazta eta ogiaren kasu, joan den asteokoetakoan mantendu ziren.



Ohi bezala azoka jendetsua izan zen atzokoa Tolosan. A. IMAZ

### » ATZOKO AZOKA

#### BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak		
Azalea	7,00	10,00
Dipladenia	10,50	-
Xarbotia	4,00	6,00
Ziklamena	5,50	-
Salbia	1,00	1,20
Zainzuria	2,80	-
Erromeroa	4,00	6,00

#### BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Onddoak potean	9,00	-

#### Fruta

Kiwi	3,50	-
Gaztaina	3,00	-
Intxaurra	2,50	4,00
Matxakanak	5,00	-
Urra	2,00	3,00
Pikua	3,00	-
Errezil sagarra	2,00	4,00

#### Barazkiak (sorta)

Tipula	0,80	1,00
Babarrun berria	12,00	13,00
Babarrun zuria	8,00	-
Tomatea	3,00	-
Gardua	3,00	-
Kayote	3,00	-
Krones	3,00	-
Porruak	1,00	4,00
Ibarrako piparra	3,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Bainak	3,00	-
Patata	1,00	1,50
Espinaka	2,00	-

#### Barazkiak (unitatea)

Eskarola lisua	1,00	1,50
Eskarola rizatua	1,00	1,50
Azalorea	1,00	1,25
Txikoria	1,00	-
Trebisoa	0,50	-
Letxuk	0,50	0,60

#### Besteak

Arrautzak	2,50	3,00
Gazta berria	17,00	-
Ardi-gazta	14,00	24,00
Behi-gazta	8,00	9,00
Ardi-behi gazta	11,00	-
Artisau ogia	2,80	3,70
Madalenak (500 gr)	3,60	-
Ogi biologikoa (900gr)	3,20	-
Ogi biologikoa (500 gr)	2,20	-

#### PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Mermelada	3,00	3,60
Arrautzak	3,50	-
Intxaurra	4,00	6,00
Baratxuria	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Ahuntz gazta (200gr)	3,00	-
Azukrea	3,35	-

## E Elkarrizketa

EDURNE PASABAN » Mendigoizalea

# «Annapurnara korearrarekin batera igotzea polita litzateke»

**Mendia»** Datorren astean abiatuko da Nepalera mendigoizale tolosarra; lehenik Shisha Pangma eta ondoren Annapurna igotzea da bere erronka.

## INIGO TERRADILLOS

2001eko maiatzaren 23an igo zuen lehen zortzimilakoa Edurne Pasabanek (Tolosa, 1973). Everest (8.848 m.) izan zen estreinakoa, eta ordutik beste 13ak igotzeari ekin zion. Egund, bi baino ez zaizkio geratzen, zortzimilakoetan txikiena den Shisha Pangma (8.027) eta Annapurna (8.091) munduko hamargarren mendirik altuena. Hamalau zortzimilakoak igo dituen lehen emakumea izan daiteke tolosarra, izan ere, laster ekingo die bi gailur horiek lortzeko espedizioei Asier Izagirre, Ferran Latorre eta Alex Txikon taldekideekin batera.

**Nola sentitzen zara espedizioa hastear zauden une honetan?**

Gogotsu. Hasteko gogo handiarekin nago. Izan ere, espedizioa hasi aurreko azken egunak lan handi-koak izaten dira gauza asko prestatu behar direlako. Uste dut lasaitasuna iritsiko dela hegazkinean sartzen garen unean.

**Noiz izango da hori?**

Martxoaren 4an, ostegunean, hartuko dugu hegazkina. Lehenengo espedizioan Shisha Pangma igo nahi dugu. Gure asmoa Nepalera iritsi eta segituan muga pasa eta Tibetera joatea zen, baina, Txinako Gobernuak martxoaren 16ra arte ez digu utziko muga igarotzen. Beraz, Nepalen egongo gara egun horietan, eta trekking eginez girora moldatuko gara. Hori lehenengo 15 egunetan egingo dugu. Eta behin Tibeten gaudelarik Shisha Pangamarako espedizioarekin hasiko gara.

**Noiz aurreikusi duzue Shisha Pangma igotzea?**

Apirilaren 15a jarri dugu azken egun bezala. Orduan jaitsi egingo ginatete, Tibetetik atera, Katmandura joan eta Annapurna igotzeko espedizioarekin hasiko ginatete. Maiatzaren erdialdera edo bukaera aldera espero dugu guztia bukatuta izatea.

**Bi gailurretan gehien ezagutzen duzun Shisha Pangma da. Beldurrez al zoaz hara edo indar handiagoarekin?**

Bosgarren aldiz saiatuko naiz hura

igotzen, eta horregatik, ondo ezagutzen dudala esan dezaket. Ez da mendi zaila, baina, azken urte hauetan egin ditudan saiakeretan atzera bota nau hainbat arrazoi-erengatik. Gogotsu noa, hari aurre egiteko motibazio handiarekin. Ez nau gehiegi arduratzen mendi honen, zailtasunari dagokionez, Annapurna zailagoa delako, elur-jau-siak izateko arrisku handiagoa dagoelako han, esaterako. Baina, orain arte Shisha Pangma ezin izan dut igo, beraz, ikusiko da zer gertatzen den orain.

**Oraingo honetan igoko ez bazenu, zer gertatuko litzateke?**

Guk Shisha Pangma igotzeko epe bat markatu dugu, eta ez bagenu egun horretarako gailurra egingo, ez genuke guztia bertan behera utziko. Orduan, Annapurna egite-rajango ginateteke.

**Hala ere, ez da berdina izango Annapurnara Shisha Pangma igota edo igo gabe joatea.**

Egia da Shisha Pangma igotzen badugu motibazio handiagorekin joango garelako Annapurnara. Ez badugu igotzen, berriz, ez da gauza bera izango, baina gogo handiz ekingo diogu, eta taldekide guztien artean aurrera egingo diogu.

**Oh Eun-Sun korearrak 13 zortzimilako igoak ditu. Bion arteko lehia dirudi honek guztiak.**

Annapurna geratzen zaio berari. Uste dut han egingo dudala topo berarekin. Ez dakidana da nik ordurako Shisha Pangma igota edukiko dun ala ez. Horrela bada, biok Annapurnako oinarriko kanpalekuan egongo ginateteke azken gailurra egiteko helburuarekin. Kon-

**Apirilaren 15erako espero dugu Shisha Panga igotzea, eta Annapurna maiatza bukaerarako**

tuak kontu, nire kasuan, behintzat, bion arteko lehia baino nire lehia bezala ikusten dut.

**Eta zortzimilakoak igotzen lehen emakumezkoa izatearena?**

Egia da Shisha Pangmara oso garraiz goazela, eta jendeak galdetu



I.T.

didala zergatik saiatu behar dudan bigailurak batera igotzen. Kontua da, azken urteetan 14 zortzimilakoak igotzen dituen lehen emakumea izatea izan dela gure helburua, eta une honetan, hori lortzeko aukera bakarra aurreikusi dugun moduan egitea da. Annapurnako oinarriko kanpalekuan korearrak eta nik egoera berean topo egiten badugu, hau da, bioi Annapurna baino ez bazaigu geratzen 14 gailurak egiteko ez dut uste lasterketa moduan hartuko dugunik eta elkarri oztopoak jarri ibiliko garenik. Nire ustez, bion artean lan egitea litzateke egokiena eta politena, eta gailurrera biok batera igotzen bagara hobeto. Baina, korearren pentsamendua oso desberdina da, eta orain arte ikusi

dudanaren arabera, lehiakorragoa dela bera esango nuke.

**Lehiarekin ala gabe, bi gailur horiek igotzea lorpen itzela izango litzateke zuretzat.**

Bai, eta ea espedizio hauen ostean hori gertatzen den. Azken urte

**Zortzimilakoak igotzen lehen emakumea izateko aukera bakarra orain bi gailurak igotzea da**

hauetan proiektu honekin gogor ibili naiz lanean, eta hori lortzea izugarria izango litzateke. Poz handia sentituko nuke, bai nik eta baita taldekideek ere. Dena den, oraindik urrun ikusten dut hori, lan handia baitago egiteko.

**Beti esan izan duzu horrelako erronketan ondoan dituzun taldekideekin harremana funtsezkoa dela.**

Azken espedizioetan bezala, Asier Izagirre, Ferran Latorre eta Alex Txikon izango ditut ondoan eskalataile moduan. Gero, gurekin batera, TVE telebista kateko *Al filo de lo imposible* saioko taldea ere izango da, bertako kamerak batik bat. Beti esan izan dudana bezala, taldea da daukadan gauzarik garrantzitsua. Aspalditik elkar ezagutzen dugun jendea gara, eta horregatik lasai nago, badakidalako ez dagoela inolako arazorik gure artean eta oso giro ona izaten dugula. Gure taldearengan pentsatzen jarrita alde positiboak baino ez ditut ikusten.





## Miaketen inguruko salaketa

**TOLOSA** • Etxeratek antolatuta epaitegiaren aurrean elkarretaraztea egin zuten atzo, Tolosaldeko eta Goierriko euskal preso senide eta lagunek. Azken hilabeteetan bisita

ugari galdu dituzte, miaketak tarteko. Egogorra horren inguruan salaketa sartzeko asmoa zuten epaitegian. Guardiako epailerik ez zegoenez, udaletxetik sartu zuten salaketa. A.I.



## Dultzainekin Tolosa Kantari

**TOLOSA** • Hileko azken larunbatero bezala, Tolosa Kantari ekimenekoak Alde Zaharreko kaleetan ibili ziren kantu doinuekin giroa alaitzen. Euskal abestiak kantatzen zituzten

eta oraingoan, Tolosako dultzainarien laguntza izan zuten. Jende asko elkartu zen atzokoan eta guztiak kantuan aritu ziren kaleetan geldialdiak eginez. E.M.A.Z



Plazan zegoen garabiak frontoiko teilatua bukatu zuen. A.I.M.A.Z

## Haize bortitzak etxearen gainera bota du garabia

**Gizartea** » Abaltzisketan, plazan kokatuta zegoen garabia bota zuen haizeak frontoiaren eta etxebizitzaren gainera.

apurtu zuen eta 3 solairuko etxe baten gainera ere iritsi zen. Ondorioz, bertan bizi diren herritarrek atera beharra izan zituzten. Hala ere, kalte materialak baino ez zituen eragin istripuak.

Argindar arazoak ere izan dira hainbat herritan; Amezketan, Ikaztegiatan edota Villabonan, esaterako, herritar ugari argirik gabegeratu zen.

Bestalde, garraio publikoari dagokionez, aldiriko tren zerbitzua eten egin zuten eta autobus zerbitzua ere 20:00etatik aurrera bertan behera geratu zen. Haize bortitzaren ondorioak nonahi sumatu zitezkeen. Zakarrontziak ere herri askotan beren lekutik mugitu zituen haize bortitzak eta zakarrak eta hostoak ere airean ibili ziren atzokoan.

Eskualdeko beste hainbat errepidetan zuhaitzak eta adarrak izan ziren traba.

### ERREDAKZIOA

Ostiraletik hasi ziren haize handia zetorrela eta herritarrei abisuak ematen. Etxetik ez ateratzeko deia zabaldu zuen Eusko Jaurlaritzak, ziklogenesi lehegarria izeneko fenomeno meteorologikoa zetorrela eta. Arratsaldeko lehen orduetan hasi eta gaur goizaldera arte iraungo du denboraleak.

### Haizearen kalteak bistan

Haize bortitzaren ondorioz, 14:40 zirenean Abaltzisketako plazan kokaturik zegoen garabia bota zuen haizeak. Frontoiaren aldera erori zen eta teilaturen zati bat

## Gorua baserriko biltegia guztiz erre da sute baten ondorioz

**Asteasu** » Besteak beste, bi auto eta segamakina erre ditu suak. Biltegia aparteko eraikina denez, baserriak ez du kalterik izan.

### ENERITZ MAIZ

Bart goizaldean, Asteasuko Gorua baserriko biltegia guztiz erre zen sute baten ondorioz. Baserriaren ondoan dago biltegia baina aparteko eraikin bat denez, baserriak berak ez du kalterik izan.

Biltegia, besteak beste, baserriko material ezberdinak gordetzeko erabiltzen zuten. Baita, sutarako egurra, belarra eta jabeen bi autoak gordetzeko ere.



Baserriaren ondoko biltegia guztiz erre zen. E.M.A.Z

### Bizilagunek ohartarazita

Baserriko jabeak, biltegian piztutako suak lotan harrapatu zituen. Azaldu dutenez, goizaldeko laurak inguruan, bizilagun bat gerturatu zitzaizen ate joka biltegian sua zegoela ohartaraziz.

Ez dakite zer gertatu den edota nolatan piztu den sua, baina be-

raiek jaikitzerako zati handi bat erreta zegoen.

Segamakina bat ateratzea lortu zutelara argitu dute baina, bloke eginiko eraikinaren hiru paretak izan eziz, beste guztia suak erre du. Bi autoak, sutarako egurra, animalientzako belarra, eta baserriko beste hainbat tresna. Suhiltzaileak

iritsi bitartean beraiek ere ontzietan ura botaz sua itzaltzen saiatu baziren ere, haizeak ez zuen asko lagundu.

Atzo arte biltegia zen guztia, baserriaren atarian zabortegegi moduan geratu zaie. Atzo eguerdian, oraindik kea zerion egur eta belar pilari.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Bigi Garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak etab garbitzeko prest daude. Deitu inongo konpromisorik gabe. Gurutze, 638 94 46 04 edota Belen 695 70 82 71.

### SALGAI

■ **Motorra.** KTM 125 SX. 1998koa eta ondo zaindua. Deitu ondorengo telefonora: 651 70 90 23





Oriako Ehorzketak eraikinaren sarrera. A. ALTUNA

# ORIAKO EHORZKETAK

**Tolosa** » Datozen egunotan, Tolosako Usabal industrigunean, eskualdeko beilatoki-krematorio berria zabalduko dute.

## AINHOA ALTUNA

Hasiera duen orok amaiera izan ohi du eta jaiotzen den oro hil egiten da. Bizi garen artean norberak hautatzen ditu guretzat egokienak ditugun zerbitzuak, gaurdaino ordea, bizitzan erabiltzen dugun azken zerbitzu bakarra genuen Tolosaldean. Gaurtik aurrera, Tolosak eta inguruko herriek aukera berri bat izango dute hiletarako prestaketa egiteko. Egun batzuk barru, datorren astean, Oriako Ehorzketak enpresak atek zabalduko ditu bertaratu nahi duen edonorentzat.

Iñaki Altuna eta Javier Urrestarazu izango dira beilatokiaren arduradunak. Eskualdean ezagunak dira lizartzarra eta Urrestarazu, aspalditik aritu izan baitira sektore honetan lanean.

Lortutako emaitzekin «oso gus-

tura» aurkitzen dira, eta «herritarrek merezi duten zerbitzu ona eta zuzena» eskaini nahi dute arduradunek. Esperientzidunak izateak, zerbitzu ona eskaintzeko aukera ematen die, ongi ezagutzen baituzte jendearen nahiak eta beharrak. Une gogor horietan familiei «ahalik eta baliabide eta erraztasun gehien eskaintzea» da beraien helburua.

Oriako Ehorzketak eraikina goizeko bederatzietatik gaueko hamarretara zabalik izango da egunero. Hala eta guztiz ere, 24 orduko zerbitzua eskainiko dute. Ospitaleetara, etxeetara... joan behar den txoko guztietara bertaratu dira arduradunak.

## Zerbitzu euskalduna

Familiarte koentzat zailak izaten diren une horietan beilatoki be-

rriak hasierako faseetatik azkeneko tramiteetara ino laguntza eta zerbitzua eskainiko dituela azaltzen dute arduradunek. «Garaiak aldatzen doazen bezala, jendearen

**Herritarrek merezi duten zerbitzu ona, zuzena eta euskalduna eskaini nahi dute**

**Jendeak interes berezia erakutsi du eta uda alderako prest izango dute krematorio berria**

**Aukera desberdinak eskainiko dira, ondorengo tramiteak egiteko laguntza barne**

ohitura eta nahiak aldatzen ari dira». Harreman zuzena izatea beharrezkotzat jotzen dute arduradunek. «Une horietan, askok, ez dute jakiten zein izaten den eraba-

ki egokiena, gure lana betikotik aterako da». «Aukera desberdinak eskainiko ditugu, hil ondorengo tramiteak aurrera eramateko laguntza eskainiko dugu, gure esku dagoen guztia egingo dugu zerbitzua ahalik eta zuzen, garbi eta onena izan dadin». Hildakoaren azken nahiak errespetatzen saiatuko dira arduradunak, epaitegiko dokumentuen bideragarritasuna beraien esku geratu ahalko da, esaterako; «betiere sendiari erraztasunak jartzean egingo dugu lan». Familia bakoitza desberdina den bezala, eskainiko den zerbitzua

ere desberdina izango da pertsona batetik bestera. Zerbitzu zuzena eta euskalduna eskainiko dute.

## Asegurua egina dutenak ere

Asegurua ordaintzen duen erabiltzaileak —asko baitira urteetan zehar garai hori heltzen denerako aseguru-poliza dutenak— orain arte ez bezala, zein zerbitzu erabili nahi duen aukeratzeko ahalmena eta eskubidea izango du, aseguru-rik egin gabe dagoen beste edonoren gisan. Norberaren esku gertuko da azken agurra non eman nahi duen.



Jabier Urrestarazu eta Iñaki Altuna arduradunak. A. ALTUNA

## Beilatokiaren bideetan barna

**Tolosa** » Beilatokiak gune hotz eta zurrin bezala ezagutzen baditugu ere, bestelako itxura batekin datorkigu.

**A. ALTUNA**

Atearen barnealdera sartu bezain pronto, giro goxoa somatu daiteke eraikinean. Harrera gela eroso batek egiten du ongietorria. Sabai eta horma zuri beltzek ukitu berritzailea dute, zintzilikatutako irudiek eta estrategikoki ipinitako argi txikiak ongi sentiarazten dute bertako bidean dabilen donor. Zenbait

gela topa genitzake korridore luzearen alde batera. Bertan, gorpua jartzeko erakusleho diskretuek beren lekua hartua dute, eta senitartekoentzat eremu eroso eta egokituak aurki genitzake. Gela guztietatik, kanpoaldera begira dagoen belartokia ikus daiteke. Leiho handiak argi naturala sartzeko bide dira, eguzki printzak barneraino sartzen direlarik. Korridorearen bestaldean, landare eta mineralez osatutako belardia ikus daiteke. Eraikinaren amaieran olibo zuhaitzez eta harriz atonduriko pasabidea dago eraikinaren kanpoaldean geratzen dena. Pasabide honetatik igarota, aurre-

an bigarren eraikin zati bat ikus daiteke. Bertan, bigarren fasean egingo duten beilatokia aurkitzen da. Ahalik eta erraztasun gehien eskaintzen saiatu dira arduradunak, «bezeroa etxean bezala sentitzea» da beraien nahia.

**Harrera ona**

Joan den asteburuan, jendeak eraikina ezagutu ahal izateko, atak zabaldu zituzten. Herritarrek harrera «oso ona» egin diote enpresari. Bisitari asko bertaratu zen eta interes «berezia» izan dute udarako eraikiko den erreketalabearekin. «Orokorrean, gustura geratu dira ikusi dutenarekin».



## Beilategi berritzailea martxan hilabete gutxiren buruan

**Tolosa** » Erreketa-labearen beharraz jabetuta, aitzindariak izango dira eskualdean Oriako Ehorzketak.

**A. ALTUNA**

Gaurdaino Donostiara bidaltzen zen gorpua erre ahal izateko. Zerbitzu honekin, geroz eta indar gehiago hartzen ari den aukera hau bertaratuko dute. «Hileta zibilak, erlijiosoak, protestanteak... guztiek izango dute beren lekua Oriako beilategian».

Beilategia egiteko labe berezi eta berritzaileen erabiliko dituzte, «ahalik eta zerbitzu onena eskaintzeko eta ingurugiroari ahalik eta kalte gutxien eragiteko».



Beilategia jarriko duten eraikina. A. ALTUNA

Kanpora begira, erreketarako labeak filtro edo iragazki berezi batzuen bidez, ez du ia kerik zabalduriko, «oso garbia izango da». Ohiko hilkutzez gain, kutxa ekologikoak

erabiltzearen aldeko apustua egingo dute, «guztontzat onuragarriagoa izango baita, beti ere familieren nahien arabera. Horretaz gain, ekonomikoagoa ere bada».

